

GIZARTE ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

KOMUNAK:

- Txosten bat egiten du eta emaitzak jakinarazten ditu hainbat euskarri erabilita.
- Talde-lanetan bere erantzukizun indibiduala onartzen eta bere gain hartzen du.
- Iritzi, ekarpen eta ideia guztiak errespetatzen ditu.
- Herriko, eskualdeko eta Euskal Herriko paisaia osatzen duten elementu eraldatu nagusiak identifikatu eta deskribatzen ditu.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Lurraren biraketa-higidura eta hark egunaren eta gauaren segidan dituen ondorioak identifikatu eta deskribatzen ditu.
- Lurraren translazio-higidura identifikatu eta deskribatzen du, eta urtaroekin lotzen du.
- Lurraren geruza nagusiak identifikatu eta izendatzen ditu.
- Paisaia definitzen du, ikasleak bizi diren herriko eta eskualdeko paisaiak identifikatzen ditu.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Gatazkak konpontzen laguntzen duten estrategiak aplikatzen ditu.
- Ingurumenaren kontserbazio eta berreskuratzearerako sentsibilitatea agertzen du.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Denbora neurtzeko unitateak ezagutzen eta behar bezala erabiltzen ditu.

EDUKIAK

KOMUNAK:

- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Talde-lana eta lankidetzalana bultzatzeko estrategiak sustatzea.
- Gatazkak konpontzeko, elkarrizketa erabiltzeko eta bizikidetzalana arauak erabiltzeko trebetasunak.
- Ikasleak bizi diren herriko eta eskualdeko geografia fisikoaren elementu garrantzitsuak non dauden jakitea.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Biraketa-higidura, egunen eta gauen segida eta ilargiaren faseak.
- Translazio-higidura, urtea, urtaroak eta egutegia.
- Lurraren geruzak.
- Paisaia.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Ingurune hurbilean antolatzeko moduak: eskola eta udalerria.
- Produktu naturalak eta haien jatorria.
- Elkarrizketa, gatazkak konpontzeko baliabidea.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Oinarrizko denbora-kontzeptuak: oraina, iragana eta etorkizuna.
- Denbora historikoa herrian eta Euskal Herrian, eta haren neurketa.

TREBEZIAK-TALDE LANA

- Iritzi, ekarpen eta ideia guztiak errespetatzen dira.
- Talde-lana. Errubrika talde-lana:
<http://laukotetobi.blogspot.com/2012/11/errubrika.html>
- Gela bateko ikasle talde batek portaera oldarkorak izaten ditu jolas-orduetan. Taldeak horretaz debate bat egitea erabakitzen du, jokabide horiek ezin direla onartu ikusarazteko.
- Gatazka konpontzeko estrategia jakin batzuen beharrari buruzko eztabaida gelan antolatzea.
- Txosten bat egin hainbat euskarri erabilia eta emaitzak jakinarazten ditu.

LURRA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Hurrengo bideoari arreta jartzea eta errealitatea eta irudimenezkoa bereiztea, egunaren eta gauaren segidari dagokionez.
https://www.youtube.com/watch?v=Grgbi24O_tE
- Lurraren mugimenduei eta horren ondorioei buruzko "egiazko" edo "gezurrezko" ariketa sinple banaka planteatzea: eguna eta gaua; urtaroak, urteak, egutegia, etab.
- Adibidez, Lurraren mugimenduen aurrean, ikasleak azalpen bat edo batzuk bilatzen ditu, zuzenena dela uste duena aukeratzen du eta taldeko gainerakoei azaltzen die.
- Paisaia zer den definituko duen talde-lana proposatzea. Taldearen barruan rolak banatu behar dira eta lana egiteko ezarritako epea bete behar da.
- Herriko paisaia nolakoa den aztertuko duen eta idatiz laburpen bat egitea talde-lana proposatzea.
- Talde txikietan, ingurumena babesteko eta berreskuratzeko dekalogo bat egitea. Errubrika talde-lana: <http://laukotetobi.blogspot.com/2012/11/errubrika.html>
- Gelako talde batek, irudiez osatutako mural sinple baten bidez, "Paisaia" bat osatzen duten ezaugarriak aurkezten ditu.
- Beren herriko eta lurraldeko mapa batean, elementu fisiko batzuk marrazten dituzte: ibaiak, mendiak eta abar.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Irakaslearen laguntzarekin ikasleek, talde txikian, beren eskola eta udalerraren antolaketaren oinarritzko eskema egiten dute.
- Taldeko irteera, produktu naturalak eta jatorria ezagutzeko (esnea, arrautzak, barazkiak, etab.). Bisita eta gero taldeka txosten txiki bat egin.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Ikasleek irakaslearen laguntzarekin, oso oinarritzkoa den lerro historiko baten, oraina, iragana eta etorkizuna kontzeptuak irudikatzen dituzte. Ikasleak bere herriko gertaera historiko garrantzitsuren bat tartekatu dezake eskema horietan.
- Denbora neurtzeko unitateekin, bakarka, mural bat prestatu.
- Ikasleak bere herriko edo auzoko denboran izandako aldaketei buruzko argazkiez txostena egiten du.
- Ikasleari bost oinarritzko termino historiko ematea eta haiekin eskema bat egiteko eskatzea.